

Finantzaz besteko enpresen errentagarritasun ekonomikoa % 6,5ekoa izan zen, eta finantza-errentagarritasuna, berriz % 10,4koa izan zen

Euskal AEko enpresa ez finantzarioen zorra ehuneko puntu bat baino gehiago jaitsi da eta % 46,7an kokatu da 2023an

Euskal AE osoan, enpresa ez-finantzarioen **errentagarritasun ekonomikoa** % 6,5ekoa izan zen 2023an, eta **finantza-errentagarritasuna** % 10,4koa, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko finantzaz besteko enpresen **zorpetze osoaren ratioa** % 46,7koa izan zen 2023an. Adierazle honek besteren baliabideen eta aktibo guztien arteko erlazioa ezartzen du, enpresen finantza-arriskua ebaluatzeko aukera emanez, eta adierazten du aktiboaren erdia baino gutxiago besteren baliabideekin finantzatuta dagoela. Haren balioa ehuneko 1,1 puntu txikiagoa da 2022an erregistratutakoa baino.

Enpresa tamainaren arabera banaketari dagokionez, enpresa ertainek (50-249 enplegu) dute guztizko zorpetze-ratiorik handiena (% 51,1), eta ondoren enpresa handiek (249 enplegu baino gehiago), % 49,5ekin, enpresa txikien % 49,4tik oso hurbil (10-49 enplegu). Mikroenpresek (1-9 enplegu) dute ratorik txikiena, % 40,7.

Jarduera-sektorearen arabera, alde nabarmenak daude. Zorpetze osoaren ratorik handienak dituzten sektoreak, % 60tik gorakoak, honako hauek dira: *Garraio materialaren fabrikazioa* (% 73,4), *Telekomunikazioak* (% 69,8) eta *Ostalaritza* (% 63,1). Aldiz, ratorik baxuenak (% 30etik beherakoak) dituzten sektoreak *Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa* (% 27,3) eta *Jarduerak higiezinekin* (% 24,6) dira.

2023an, finantzaz besteko enpresen aktibo korrontea % 0,4 jaitsi zen, eta guztizko aktiboa % 3,2

Finantzaz besteko euskal enpresen **ondare-balio** metatua, 2023an, 226.787 milioi eurokoa da balio nominalean. Ondare-balioak enpresa batek dituen ondasun eta eskubide guztiak adierazten ditu, baita dituen zorrak edo betebeharrak ere.

Industria-sektore handiei dagokienez, zerbitzuek enpresa ez-finantzarioen **aktibo osoaren** % 50,6 hartzen dute; industriak % 41,6 eta eraikuntzak % 7,8. Egitura hori 2010ekoarekin alderatuz gero, zerbitzuek (% 44,1 2010ean) eta, neurri txikiagoan, industriak (% 40,5 2010ean) pisua irabazi dutela ikusiko dugu, eraikuntza-sektorearen kaltetan (% 15,4 2010ean).


Aktibo finko edo ez-korrontearen barne daude, besteak beste – epe luzeko negozioarako balio duten baliabideak, hala nola ibilgetu ukiezina (patenteak, markak), materiala (makineria, eraikinak), higiezinetako eta taldeko enpresetako inbertsioak edo epe luzeko inbertsio finantzarioak, eta kuantitatiboki partida garrantzitsuena da. 2023an, 127.127 milioi eurokoa da eta aktibo osoaren % 56,1.

Aktibo korrontek – hamabi hilabete baino gutxiagoan diru bihur daitekeen enpresa baten aktiboak –, bestalde, 99.659 milioi euroekin, gainerako % 43,9 hartzen du.

Bilakaera horrekin, aktibo finkoa % 5,2 gutxitu da 2022aren aldean, eta aktibo korrontea edo zirkulatzailea, berriz, % 0,4. Bi masen bilakaeraren konbinazio gisa, **aktibo osoa** % 3,2 egin du behera aurreko urtearen aldean.

Adierazi behar da aktibo finkoaren eta korrontearen arteko erlazioa nabarmen aldatzen dela jarduera-sektore zehatzaren arabera. Tarte horren mutur batean dago, *Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industria* jarduera-adarraren % 27,5 eta beste muturrean dago *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura* adarra % 88,5. Azken horretaz gain, % 70etik gora daude baita ere, *Telekomunikazioak* (% 84,5) eta *Jarduerak higiezinekinak* (% 76,8). Beste muturrean, % 30etik % 40ra bitartean daude, *Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa, Eraikuntza, Altzarien fabrikazioa; manufakturako beste industria batzuk; Kautxu produktuen, plastikoen eta metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa; Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa; Handizkako eta txikizkako merkataritza, eta ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa*.

Euskal AEko enpresa ez-finantzarioen aktiboa eta positiboa. 2023



Iturria: Eustat. Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak

Era berean, pasiboaren eta ondare garbiaren ondare-masaren barruan, baliabide propioei edo **ondare garbiari** dagokiona, 120.788 milioi eurora eta % 53,3ra iritsi da 2023an, 2022ean erregistratutakoa baino % 1,1 gutxiago. Pasiboak enpresa baten finantza-obligazioak adierazten ditu; ondare garbia, berriz, eskura dauden finantza-baliabideen zenbaketa osoa da.


Kontu-sailen multzoan, epe laburrerako galdagarria edo **pasibo korrontea**, berriz, 64.993 milioi euroko balioarekin, guztizkoaren % 28,7 da eta % 5 jaitsi da azken urtean.

Epe luzeko galdagarriaren edo **pasibo ez- korrontearen** partidek, 41.006 milioi, % 6ko jaitsiera izan dute azken urtean, eta multzoaren % 18,1 biltzen dute. Pasibo ez-korrontea epe luzeko zor eta obligazioek osatzen dute, hau da, urtebetetik gorako epemuga dutenak. Emaita horiekin, **maniobra-funtsa**, enpresa batek bere epe laburreko ordainketei erantzuteko duen gaitasuna, aktibo korrontearen eta pasibo korrontearen arteko diferentzia gisa kalkulatzen dena, positiboa da, 34.666 milioi eurokoa (aktibo osoaren % 15,3), 2022koa baino % 9,6 handiagoa.

Finantzaz besteko enpresen errentagarritasun ekonomikoa 2010etik izan den altuena izan da

Enpresa ez-finantzarioen **errentagarritasun ekonomikoa** % 6,5ekoa izan zen 2023an, eta **finantza-errentagarritasuna** % 10,4koa, 2010etik izandako emaitzarik onenak. Erregistro horiek 2022an baino ia ehuneko puntu bat gehiago dira bi kasuetan.

Euskal AEko finantzaz besteko enpresen errentagarritasun ekonomiko eta finantzarioaren ratioak



Iturria: Eustat. Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak

Errentagarritasun ekonomikoaren ratioak enpresaren kudeaketaren eraginkortasunari buruzko informazioa ematen du. Zenbat eta handiagoa izan, inbertitutako kapitalaren produktibitate handiagoa adierazten du, hau da, orduan eta aktibo gutxiago behar direla onura berbera lortzeko.

Aztertutako ekitaldian, errentagarritasun ekonomiko handienak enpresa handiek izan zituzten (249 enplegu baino gehiagokoek); izan ere, 2022arekin alderatuta 1,1 puntu handitu ondoren, % 8,6ko ratioa lortu zuten, eskuragarri dagoen serie historikoko handiena.

Era berean, nabarmentzekoa da enpresa txikien portaera (10-49 langile), 2023an % 6,2ko errentagarritasunarekin. Bestalde, mikroenpresek (1-9 langile) eta tamaina ertaineko enpresek (50 eta 249 langile) antzeko emaitza positiboak lortu zituzten, biek % 5,7rekin.

Jardueraren sektore ekonomikoari dagokionez, 2023an guztiek errentagarritasun ekonomiko positiboak izan zituzten; nabarmentzekoak dira *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura* (% 13,6), *Kautxu produktuen eta plastikoen eta metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa* (% 11,3) eta *Industria kimikoa* (% 10,6). Beste muturrean, errentagarritasun txikiena, ohi bezala, *Ikerketa eta garapenari* (% 0,7) eta *Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerari* (% 2) dagokie.

Urte arteko bilakaerari dagokionez, honako sektore hauen portaera positiboa azpimarratu behar da: *Energia elektrikoaren hornidura, gasa, lurrina eta aire girotua, Erauzteko industriak* eta *Beste zerbitzu batzuk*. Sektore horiek, azken urtean, ehuneko 6,5, 4,6 eta 4,4 portzentaje-puntu (p.p.) gehitu dituzte, hurrenez hurren, eta % 13,6an, % 8,4an eta % 6,9an kokatu dira.

2023an, **finantza-errentagarritasuna** ehuneko 0,9 puntu igo da, eta % 10,4an geratu da. Errentagarritasun finantzarioaren ratioak enpresak jabeei edo akziodunei ordaintzeko duen gaitasuna adierazten du.

Enpresen tamaina kontuan hartuta, errentagarritasun ekonomikoan ikusitako eskemaren antzekoa sumatzen da; enpresa handiek % 14,7ko errentagarritasuna izan zuten, eta ondoren enpresa txikiek % 10,1ekoa, ertainek % 9,4koa eta mikroenpresek % 8,4koa. Mikro-enpresak dira gehien igo direnak (+ 1,7 p.p.), gero enpresa handiak (+ 0,8 p.p.) eta enpresa ertainak (+ 0,6 p.p.). Enpresa txikiek, aldiz, beherakada txiki bat izan zuten (- 0,3 p.p.).

Finantza-errentagarritasunaren, sektore-azterketak oso egoera heterogeneoak uzten ditu agerian. Horrela, lau sektorek % 15etik gorako errentagarritasun finantzarioak izan zituzten: *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura* (% 21,8), *Kautxu produktuen eta plastikoen eta metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa* (% 19,9), *Industria kimikoa* (% 16,8) eta *Garraiorako materialen fabrikazioa* (% 15,1).

Era askotako jardueretako zortzi sektorek osatutako beste talde batek % 10eko batez besteko errentagarritasun finantzarioa berdindu edo gainditzen du. Honako hauek dira sektore horiek: *Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa; Ostalaritza eta Beste zerbitzu batzuk* (% 14,6); *Merkatuko osasun jarduerak; Botiken fabrikazioa; Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa; Erauzteko industriak; Zurgintza, papera eta arte grafikoak; Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa; Altzarien fabrikazioa; bestelako manufaktura industriak; makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa; Oinarritzko metalen eta produktu metalikoaren fabrikazioa, makineria eta ekipoen salbu, eta Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (horien errentagarritasuna % 13,3 eta % 10,1 artekoa da).

Gainerako jarduerak batez besteko errentagarritasunaren azpitik daude, baina positiboan, *Telekomunikazioak* sektorea izan ezik, haren finantza-errentagarritasuna negatiboa baita, -%2,8ko balioarekin.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62